

# EUSKAL-ERRIA

REVISTA VASCONGADA

T.<sup>o</sup> LXIX

SAN SEBASTIÁN 15 DE JULIO DE 1913

N.<sup>o</sup> 1084



Jose Franzisko Aizkibel jauna

† 1865-GARREN URTIAN

# JOSE FRANZISKO AIZKIBEL jauna

IL ZAN 1865-GARREN URTIAN

R. I. P.

**A**ZKORTI-KO uri leñargian jayo zan gipuzkoar ospetsu au. Buru azkarra zan, ta ikasi nayak erosi azi zizkan al zituben liburu guziak, ezin azerik jakin al guziak jakiña gatik.

Lur-lanian edo nekazaritzan guttiz trebea zan, ta gogangarriak dira gai ontan *Sociedad Económica Matritense* deitzen dan anaidean eman zituben erakuspenak.

Bañan gai abetan baño azkarrago zan oraindik izkuntzetan, bada bazekizkiyen griegua, latiña, arabia, española, frantzeza, italianua, ingelesa ta beste geyago, ta denan gañetik gure euskera maitagarriya.

Euskera ikasi ta erakuzten igaro zuben bizirik geyena, ta ala argitaratu zituben gain gañeko liburuak. Ara beren izenak: *Observaciones a los refranes euskaros*; *Diccionario de etimologías vascongadas*; *Gramática general analítica del vascuence*; *Radicales vascongadas*; *Sobre la declinación vascongada*; ta abetzaz gañera «Testamentu zarra», euskeraz, españolaz, frantzezez, latinez eta griegoz. Bañan izen geyago eman diyon egipena izan da «Euskera-tik erderara biurtzeko itztegia». Au bakarria egin bazuben naikua zan euskaldun guziak bere izena maitatzeko, maita izan duten bezela, esanaz Iparragirre-kin batian:

Ogei ta ainbeste urtean  
Bizi da Toledon  
Izarraiz-ko semea  
Ez da beti lo egon :  
Liburuen gañera  
Lanean gau ta egun  
Gure euskera maitea  
Galdu ez dezagun.

EUSKAL-ERRIA